

## 160 persona baino gehiagok parte hartu zuten San Pankrazioko jokoetan

2016/05/18

Urtero moduan, Kirol Zerbitzuak Arrasateko eta IDeO Oronako kanpusetan, San Pankrazio egunean hainbat txapelketa antolatu zituen, giro polita sortuz fakultatean goizeko 10:00tatik hasita.

Arrasateko kanpusean, alde batetik, kantinan Mus eta Partxis txapelketak antolatu genituen, eta bestetik Iturripeko kiroldegi barruan langileen arteko areto futbol txapelketa eta kanpoaldeko kantxan ikasleen arteko 3x3 saskibalo txapelketa.

Parte hartzaile ugari izan ziren txapelketetan eta gogotsu aritu ziren bakoitza bere jokamoldean. Mus-ean 12 bikote, partxisean 6 bikote, areto futboleko 4 talde eta 3x3 txapelketan 3 talde. Guztira, langile eta ikasleen artean 80 parte hartzaile inguru aritu ziren txapelketetan.

Garaikurra eta Kirol Zerbitzuko sudadera bana eraman zuten oparizat etxera irabazleek!!

IDeO Orona kanpusaren kasuan, ikasle eta langileei lagunduz antolatu ziren toka, mahai tenisa, dardoak, hiruko jaurtiketak, toke lehiaketa, wii txapelketak, mus eta pokerra. Hemen ere, 80 pertsona baino gehiago aritu ziren ekintza hauetan, kanpusean giro oso polita sortuz.

Eskerrik asko parte-hartzaile guztiei eta zorionak aurtengo irabazleei Hemen ikusi ditzakezue emaitzak eta argazkiak

